



IRIZPEN ZK.: D19-015

ZENBAIT LAGUNTZA ETA DIRU-LAGUNTZA KUDEATZEKO, BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEI ZERGA DATUAK KOMUNIKATZEARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Arabako Foru Aldundiko Ogasun Sailak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskaera idazkiak honakoa adierazten du:

“2018ko abenduaren 11n Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak lankidetzaz hitzarmen bat izenpetu zuten, administrazio elektronikorako oinarriko irtenbideak emateko elkarri (2018-12-24ko EHAA).

Hona xedapen zatiak dioena:

“1.- Euskal administrazio guztiek, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bai Foru Aldundiak eta toki-erakundeak, hainbat betebeharrak dituzte, eta tartean honako hauek: herritarrei kalitate oneko zerbitzu eraginkorrak eskaintzea, kudeaketa publikoan eraginkortasuna bilatzea, baliabide publikoak modu egokian esleituz eta erabiliz; administrazio-izapidetzeak erraztu behar dituzte, administrazio-bikoiztasunak saihestu edo deuseztatu behar dituzte eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete behar dute, gainerako administrazio publikoekin jardutean partaidetza-, objektibotasun-, gardentasun-, lankidetzaz-, elkarlan- eta koordinazio-printzipioei jarraituz, beren helburu komunak erdiesteko, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 3. eta 140. artikuluetan ezartzen duen moduan; halaber, beren gobernamentu publikoko eremuan aurrera egin behar dute, administrazio publiko efizienteagoa, eraginkorragoa, hurbilagoa, gardenagoa eta parte-hartzaileagoa eraikitzeko.

Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da administrazio publikoen arteko elkarlana areagotzea, lankidetzaz-hitzarmenak sinatzen dituzten alderdiek hartzen dituzten konpromisoekin eta baldintzekin, eta, zehazki, euskal administrazioen arteko komunikazio-sare bat izatea, haien artean informazioa trukatzeko sistemak eraikitzea administrazio-prozeduran dokumentuak edo datuak eman beharra saihesteko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera, administrazioen arteko eta herritarrekiko komunikazio- eta jakinarazpen-sistema bat garatzea eta identifikazio eta sinadura elektronikorako sistema eta aplikazio informatikoak partekatzea eta berreraikitzea, ordainketetarako, kontratazio publikorako eta beren eskumeneko beste edozein administrazio-jarduketarako.

Hitzarmena da administrazio publikoen arteko akordioak formalizatzeko tresna juridiko bat, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluko VI. kapituluak, Euskadiko Toki Erakundeak buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua xedatzen dutenaren arabera.



Hitzarmena izenpetu ostean, Arabako Foru Aldundiak hainbat zerbitzu eskaini zizkien, berariaz horretarako sortutako bitartekaritza elektronikorako plataformaren bidez, halako zerbitzuak eskatzen zituzten administrazio publikoetako sailek erabiltzeko, adibidez, honakoak: betebeharrak fiskalak egunean edukitzeari buruzko egiaztapenak, zergadunen datu ekonomikoak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren deklarazioetatik eskuratutakoak, etekinen ordaintzaileek aurkeztutako informatzeko ereduak, eta abar”.

Baina, behean aipatzen den araudia kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiak hainbat zalantza ditu, zerbitzu horietara sarbidea izateko administrazioek bete behar dituen baldintzei buruz:

- 1) Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua:

“2.- Interesdunak ez daude beharturik administrazioaren batek egina den agirien kopiak ekartzera, nahiz agiri horiek prozeduran aurkeztea nahitaezkoa izan nahiz aukerakoa izan, betiere interesdunak onespena adierazia badio agiri horiek kontsultatzeari edo ateratzeari. Kontsultatzea edo ateratzea interesdunek baimendua delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela.

Interesdunaren kontrakotasunik ezean, administrazio publikoek elektronikoki atera beharko dituzte agiriak, beren sare korporatiboaren bitartez edo datu-bitartekaritzaarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez.

Nahitaezko txosten bat lehendik egina duenean prozedura izapidetzen ari den administrazio-organismoak beste batek, hamar eguneko epean bidali beharko du hark, eskatzen denetik aurrera zenbaturik. Epe hori betetakoan, interesdunari jakinaraziko zaio ekar dezakeela txosten hori edo geldi daitekeela organo eskudunak bidaltzeko zain”.

- 2) Era berean, Arabako Zergei buruzko Foru Arauaren 92. artikulua honakoa xedatzen du:

“92. artikulua.- Zerga alorrean ondorioak dituzten datuen izaera erreserbatua.

1.- Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean eskuratzen dituen datu, txosten edo aurrekariak izaera erreserbatua dute, eta berak kudeatu behar dituen zergak edo baliabideak modu eraginkorrean aplikatzeko eta zigorrak ezartzeko baino ezin dira erabili. Hortaz, ezin izango zaizkio beste inori utzi edo jakinarazi, non eta horren xedea honako hau ez den:

...

...

d) Herri administrazioei laguntzea ogasun publikoaren eta gizarte segurantzaren aurkako delituak jazartzeko eta Europako Batasuneko funts publikoaren konturako laguntzen eta diru-laguntzen arloko iruzurraren aurkako eginkizunetan.

...

...

l) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren”.



Arau horiek ikusita, Aldundiak hainbat galdera egin nahi dizkio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, bekak edo laguntza publikoak izapidetzen direnean dauden une desberdinetakoak:

A) BEKAK/LAGUNTZA PUBLIKOAK ESKATZEA

Herritarrek, beka edo laguntza publiko bat eskatzen dutenean, administrazioko eskumena duen sailean aurkezten dituzte eskabideak. Bekak edo laguntza publikoak ematea eta horien zenbatekoa eskatzailearen eta bere familia-unitatearen sarreran arabera izaten da gehienetan. Balorazioa egiteko, eskabidearekin batera egoera ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa ere bidali behar da. Izapideak errazteko, eta eskatzaileek ez dezaten berriro aurkeztu behar lehendik foru ogasunetan dauden datuei buruzko dokumentazioa, ondoko hiru aukera planteatu daitezke:

- 1) Herritarrak ez aurkeztu behar izatea sarrerak justifikatzen dituen dokumentazioa, hau da, ez aurkeztu behar izatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko aitortpenik, eta laguntza kudeatzen duen administrazioak, bitartekaritzako plataforma erabiliz, eskatu ahal izatea datuak foru ogasunari, eskatzailearen adostasunik gabe.
- 2) Laguntza izapidetzen duen administrazioak nahitaez eskatu behar izatea beti eskatzailearen berriazko adostasuna beka/laguntza eskatzeko eskabide ereduan, dagokion foru ogasunari eskatu ahal izateko eskatzailearen datu ekonomikoak.
- 3) Laguntza izapidetzen duen administrazioak "ohar" bat ipini behar izatea eskabide ereduan, adierazteko eskumena duen foru ogasunari eskatzailearen datuak eskatuko dizkiola (ulertuko da eskabidea sinatzen badu, adostasuna adierazten duela), datuak eskatzearen aurka dagoela adierazi ezean.

B) ESKATZAILEEN DATU EKONOMIKOAK EGIAZTATZEA

Beka edo laguntza publikoa kudeatzen duten sailek, eskabideak erregistratu eta gero, egiaztatu egin behar izaten dituzte eskatzaileek eskabideetan adierazi dituzten datu ekonomikoak, ebatzi ahal izateko ea eskatu dituzten laguntzak lege eman behar zaizkien ala ez. Fase horretan egiaztatu ahal dute ea eskabideetan dauden datuak bat datozen foru ogasunean daudenekin ala ea informazio gehiagorekin osatu behar dituzten.

Beka/laguntza publikoa kudeatzen duen sailak izapide hori gauzatu nahi izanez gero, ulertu behar da ezar daitekeela Arabako Zergei buruzko Foru Araua Orokorraren 92 d) artikulua, eta ez dela beharrezkoa interesdunaren adostasuna, argi dagoelako hau egiten dela laguntza publikoen esparruko iruzurra saihesteko? ala halakoetan ere beharrezkoa da interesdunaren adostasuna?

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen



aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultatu diguten kasua aztertzeko, hasi behar dugu esaten galderaren helburua dela jakitea ea badagoen oinarri juridikorik foru aldundiek zerga datuak komunikatzeko beste administrazio publiko batzuei, administrazioek behar dituztelako hain eskumenak burutzeko; kasu honetan, datuen komunikazioa da administrazio horiek, esleituta dauzkaten eskumenak baliatu ahal izatea: beka edo laguntza publikoak izapidetzea.

Kontsulta idazkiak galdetzen du ea Bulegoak zer uste duen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua ezargarritasunari buruz, eta ea artikulua horretan oinarritu daitekeen tratamenduaren zilegitasuna.

Hasteko, gogora ekarri behar dugu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua, hasieran idatzita zegoen moduan, arautzen zuela interesdunek eskubidea zutela ez aurkezteko administrazioak egindako agiriak, interesdunak adostasuna adierazi ezker agiriok kontsultatzeko edo ateratzeko; eta adostasuna adierazi zelako presuntzioa egingo zela, prozeduran kontraktasun espresua adierazi ezean edo aplikatzekoa zen lege bereziak ez bazuen agintzen adostasun espresua adierazi beharra zegoela.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren azken hamabigarren xedapenak 39/2015 Legearen 28.2 aldatu du, eta honela geratu da:

«28. artikulua. [...]

*2. Interesdunak ez daude beharturik jada diharduen administrazioaren esku dauden dokumentuak edo beste administrazioaren batek eginak direnak ekartzera. **Diharduen administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahalko ditu, interesdunak aurka egin ezean.** Ezin izango da aurka egin, dokumentua ekartzea nahitaezkoa denean zehatzeko edo ikuskatzeko ahala egikaritzeko esparruan.*

Administrazio publikoek elektronikoki eskuratu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboan bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez.

Nahitaezko txosten bat lehendik egina duenean prozedura izapidetzen ari den administrazio-organoak beste batek, hamar eguneko epean bidali beharko du hark, eskatzen denetik aurrera zenbaturik. Epe hori betetakoan, interesdunari jakinaraziko zaio ekar dezakeela txosten hori edo geldi daitekeela organo eskudunak bidaltzeko zain”.

Aldaketa handia izan da, lehen adostasunaren presuntzioa egiten zelako, interesduna berariaz aurka agertu ezean; eta orain, ordea, administrazioak lege-gaikuntza du kontsultatzeko, interesdunak berariaz aurka egin ezean. Aldaketaren jatorria



Erregelamendu Orokorra da, izan ere, interesdunaren pasibotasuna oinarri hartuta, adostasuna adierazitzat jotzea ez baitator bat Erregelamendu orokorraren 4.11 artikulua finkatutako adostasun kontzeptuarekin.

“Interesdunaren borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua, deklarazio edo egintza positibo argi batez egina, interesduna ukitzen duten datu pertsonalen tratamendua onartzeko dena”.

Gainera, Erregelamendu Orokorren 32. artikulua oso argigarria da, argi dioelako *“adostasuna baieztapen egintza argi bat izango dela”*; eta, beraz, *“isiltasunaren, aurretik markatutako laukitxoan edo jarduera-ezaren bidez ez da adostasunik adieraziko...”*.

Artikuluaren idazketa berriak ez du adostasuna aipatu ere egiten, eta administrazio jardulari ahala aitortzen dio aurkeztu ez diren agiriak kontsultatzeko edo biltzeko, interesduna ez bada horren aurka agertzen. Adostasunaren ordean, artikulua argi eta garbi jasotzen du agiriak kontsultatzeko edo eskuratzeko lege gaikuntza, interesdunak tratamenduaren aurka dagoela adierazten ez badu behintzat.

Kontsulta egin digun administrazioak planteatu du beka edo laguntza kudeatzen duen administrazioak hiru modutara joka dezakeela 28. artikulua ezartzeko:

1. Herritarrak ez izatea bere sarrerak egiaztatzeke dokumentaziorik aurkeztu beharrik, eta administrazio kudeatzaileak eskatzea datua foru ogasun eskumendunari, eskatzailearen adostasunik gabe.
2. Laguntza izapidetzen duen administrazioak nahitaez eskatu behar izatea beti eskatzailearen berariazko adostasuna beka/laguntza eskatzeko eskabide ereduari, dagokion foru ogasunari eskatu ahal izateko eskatzailearen datu ekonomikoak.
3. Administrazio kudeatzaileak “ohar” bat ipini behar izatea eskabide ereduari, adierazteko eskumena duen foru ogasunari eskatzailearen datuak eskatuko dizkiola, datuak eskatzearen aurka dagoela adierazi ezean.

Horrekin lotuta, aipatzekoa da dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko eskubideak — 39/2015 Legearen 28.2 artikulua idazkera berriaren arabera— administrazio kudeatzailea gaitzen duela aurkeztu ez duten informazioa bildu ahal izateko, nahiz eta interesdunak gaikuntza baliogabetu dezakeen, berariaz aurka eginda. Beraz, gure ustez, ez da interesdunaren adostasunik eskatu behar, 28.3 artikulua ezarri zenetik egiten diren datu tratamenduetarako, ez delako adostasunik behar. Lehen ere esan dugunez, harrezkero lege gaikuntza egon behar delako, eta, nahi izanez gero, tratamenduaren aurka egin dezake interesdunak. Halakoetan, interesdunak aurkeztu beharko ditu administrazioak eskatutako datuak edo dokumentuak, arau ezargarrion xedatutakoarekin bat (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.1 artikulua).

Gure ustez, datu-tratamenduan leialtasun printzipioa bete nahi bada, eskabidean azaldu beharko zaio interesdunari, eskatutako dokumentazioa aurkeztu ezean, administrazio kudeatzailea gaituta dagoela informazio hori bere aldetik eskuratzeko, salbu eta interesduna berariaz horren aurka agertu. Eskabide-inprimakian aukera eman behar da aurka egiteko eskubideaz baliatzeko, eta laukitxoan markatuz ala beste bideren bat erabiliz baliatu ahalko da. Horrela jokaturik, uste dugu errespetatu egiten direla ukituen pribatutasun itzaropena, datuak leialki tratatuko dituztelako.



Badago alderdi bat nahitaez aipatu beharrekoa, eta da familia-unitateari edo bizikidetz-unitateari buruzkoa. Laguntza eta diru-laguntzen deialdi askotan eskatzaileek inoren datuak aurkeztu behar izaten dituzte, familia-unitateko beste pertsona batzuen datuak, hain zuzen ere. Horrek zaildu egiten du 39/2015 Legearen 28.2 artikulua ezarpena. Esandako guztiarekin bat, 28.2 artikulua administrazioa gaitzen du eskatzaileak aurkeztu ez duen informazioa kontsultatzeko edo lortzeko, eskatzailea horren aurka agertu ezean. Edozelan ere, nekez agertu ahal dira horren aurka, jakin ere ez dakitenek euren datu pertsonalak tratatu egingo dituztela. familia-unitate bereko beste pertsona batek aurkeztu dituelako laguntza edo diru-laguntza bat eskatzeko.

Gure ustez, 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren azken xedapenak arazo hori nolabait konpondu egiten du, egiaztatze ahala aitortzen delako administrazioei, aurka egiteko aukerarik gabe.

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Administrazio publikoen egiaztatze ahala.

Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatze.”

Badirudi egiaztatze-lanak egiteko aukerak balio duela interesdunak deklaraturako norberaren nahiz inoren datuak egiaztatze. Horrela ez zen ezarri beharrik izango 28.2 artikulua familia-unitateko datuak eskatzen dituzten kasuetan. Edozelan ere, egiaztatze ahalak ez du balio datu kategoriatara berezietarako, halako datuak adostasunik gabe tratatu ahal izateko, Erregelamendu Orokorreko 9.2 artikuluan zerrendaturako salbuespenetako bat egon behar delako. Gauza bera geratzen da zerga arloko informazioarekin ere, erregimen berezia duelako. Segidan azalduko dugu.

III

Zerga arloko informazioari dagokionez, Esparru Publikoko Lege Erregimenari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen hamazazpigarren xedapen gehigarriak honakoa xedatzen du:

“Zerga Administrazioko Estatu Agentzia bere legeria espezifikoa eraenduko du eta, bere legeria espezifikoarekin bateragarria den guztian, modu osagarrian, lege honetan aurreikusita dagoenak.

Tributu-arloko informaziorako irispidea izateko, informazio hori lagatzeko edo komunikatzeko, legeria espezifikolari jarraituko zaio kasu guztietan”.

Zerga-datuak komunikatzeko, araudi berezia dago, eta Zergei buruko lege orokorrean eta foru arauetan dago aurreikusita. Zehatz esateko, Arabako Zergei buruzko Foru Arauaren 92. artikulua xedatzen du zerga informazioak izaera erreserbatua duela, eta dagokion zergak ezartzeko erabiliko dela, eta ezin izango zaiela hirugarrenei laga, eta lagatzekotan, 92. artikulua ezarritako salbuespenak izan beharko direla.

Bada, artikulua horretan zerrendatuta dauden salbuespen guztietatik, arreta jarri behar dugu zerga esparruan ez diharduten administrazio publikoei egiten zaizkien lagapenetan. Era horretako lagapenak artikulua d) eta l) letretan dauden jasota.



Esate baterako, d) letrak aurreikusten du adostasunik gabe laga daitezkeela datuak informazioa beharrezkoa bada iruzurraren aurka egiteko funts publikoak jasotzen direnean, eta ondoko kasuan onartu egiten da datuak lagatzea adostasunik gabe:

“d) (10) Herri administrazioei laguntzea ogasun publikoaren eta gizarte segurantzaren aurkako delituak jazartzeko eta Europako Batasuneko funts publikoen konturako laguntzen eta diru-laguntzen arloko iruzurraren aurkako eginkizunetan”.

Gainera, l) letran datuak administrazio publikoei lagatzeko aukera emateaz gain, esparru publikoko beste entitate batzuei lagatzea baimentzen du, baina informazioaren titularren alde aurreko adostasunarekin. Hona l) letrak dioena:

“l) (22) Herri administrazioekin eta sektore publikoko gainerako entitateekin lankidetzan aritzea euren eginkizunak bete ditzaten, emandako datuetan aipatzen diren zergapekoek baimena eman ondoren”.

Gure ustez, bi salbuespen horiek dira lege titulu bakarrak laguntza edo diru-laguntza kudeatzen duen administrazioari zerga arloko datuak komunikatu ahal izatea legitimatzeko.

Artikuluaren l) letrako salbuespenari buruz esan behar da oro har administrazio publikoek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduak ez dutela oinarrian ukituen adostasunik, alde bi horien artean desoreka dagoelako; eta desorekak ez duelako uzten adostasuna adierazten Erregelamendu Orokorrek ezarritako baldintzekin (4.11 artikulua). Era horretako tratamenduek interes publikoa asebetetzea izan ohi dute helburu, edo botere publikoak egikaritzea; eta lege mailako arauak esleitutako eskumenetan dute jatorria.

Eta d) letran aipatzen den salbuespenari buruz esan behar dugu —laguntzen esparruko iruzurraren aurkako borrokan du oinarria— azpimarratzekoa dela batasuneko legegileak garrantzi handia aitortzen diola. Erregelamendu Orokorreko gogoeten ataletan interes legitimoa aipatzen denean, hainbat adibide agertzen dira, eta berriaz aipatzen da iruzurraren aurkakoko borroka. Esate baterako, 47. gogoetak honakoa dio berriaz: “iruzurrak prebenitzeko behar den datu pertsonalen ezinbesteko tratamendua ere bada dagokion tratamenduaren arduradunaren interes legitimoa”. Horren gainean esan behar da administrazio publikoak ezin duela baliatu bere interes legitimoaren aldeko oinarri juridiko moduan, Erregelamendu Orokorreko 6. artikulua berriaz dioelako “1. zenbakiko f) letran xedatutakoa ez zaiola aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari”. Hori hala bada ere, beste hau ere egia da: iruzurraren prebentzioa adibide bat da adierazten duena banakako interes legitimo partikular batek bat egin dezakeela banakakoaz gaindikoa den eta administrazioaren jardura gidatu behar duen beste interes orokor edo interes publiko batekin.

Aipatzekoa da Amelia González Méndezek egindako lana zerga arloko datuak lagatzeari buruz eta iruzurraren aurkako borrokari buruz. Segidan lanaren zati bat itsatsiko dugu:

“Alde batetik, zerga arloko datuak komunikatzea bidezkoa bada interes orokorreko helburu bat lortzeko, funtsezkoa izango da, prebentziorako egindako ebaluazioez gain, aldizkako ebaluazio bat ere egitea ex post, jakiteko ea aurreikusitako helburua bete den eta ea zenbatera arteko eraginkorra izan den onartutako neurria. Hori egitea lagungarria izango da aipatutako ondasun konstituzionalen ezarpena behar bezala egokitzeko eta doitzeko xedapenak onartzeko, bai eta printzipioa betetzen ez duten datu tratamenduei lege zerga baimena kentzeko, ez direlako egokiak lortu beharreko helburuak erdiesteko.



Azkenik, gure Estatu ereduaren ikuspegitik begiratuta ere aztertu daiteke. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak eta Konstituzio Auzitegiak azpimarratu egiten dute oinarritzko eskubide bat murrizten denean, murrizketa legearen arabera den neurtzeko, gizarte-garrantziaren irizpidea ere erabili behar dela, hau da, gizarte demokratikoan neurria beharrezkoa dela zehaztu beharko da. Ikuspegi horren arabera, eztaba daezina da datu tratamenduen gaineko erabaki legalen eta administratiboen gizarte-garrantzia; eta beraz, zerga arloan datu lagatzeen helmena zehazteko, testuinguruaren arabera zenbait eragile hartu behar dira kontuan, adibidez, ea ekonomia eta finantza krisi bat dagoen ala Estatu soziala hornitzeko zailtasunak dauden; horien arabera zehaztu beharko delako une bakoitzean zenbatera arteko garrantzia duten lagundu beharra betetzeak eta iruzurraren aurkako borroka egiteak, bai eta zenbateraino gailentzen zaion 18.4 artikuluko eskubideari. Kontuan hartu behar da gainera, eragile horien arabera izan ohi dela zenbait portaerekiko gizarte-gaitzespena". (Zerga arloko datuak lagatzea eta argitaratzea eta datu pertsonalak babestea aurrez aurre. Amelia González Méndez)".

Kontu horrekin lotura, aipatu behar da duela gutxi onartu dutela Zigor Kodea aldatzen duen otsailaren 20ko 1/2019 Lege Organikoa, eta lege horren bidez, legegile nazionalak Estatuko araudira ekarri dituela batasuneko hainbat zuzentarau, esate baterako, 2017ko uztailaren 5eko 2017/1371 Zuzentaraua, Europar Batasunaren finantza interesei kalte egiten dien iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa. Lege organikoaren berrikuntzak zabaldu egin du Zigor Kodearen 308. artikulua arautzen duen diru-laguntzen arloko iruzurraren delitua, eta batera arautzen ditu diru-laguntzen arloko iruzurraren delitu nazionala eta Europar Batasuneko Aurrekontu Orokorrei egindako iruzurraren delitua.

Orain arte esandako guztia aintzat hartuta, baieztatu dezakegu funts publikoen konturako laguntzak edo diru-laguntzak jaso eta eskuratzeko iruzurraren aurkako borroka interes orokorreko helburua dela, eta legitimatu egiten duela zerga arloko datuen adostasunik gabeko tratamendua; eta zerga administrazioari dagokiola zehaztea foru arauak helburu horretarako jasota duen salbuespenaren helmena.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abuztuaren 8a